

duguna. Mugaz gaindiko arazo juridikoei erantzun bat emateko da. Ikusi dugu jendeak benetako interesa daukala: zer gertatzen da isun bat jartzen badizute Baionan, nola exekutatu daiteke hemen? Exekutatzeko da edo ez? Han bizi direnek nola ordaindu behar dituzte zergak? Halako gai puntualak jorratzen dira.

Hortik bide bat zabal daitekeela uste duzu?

Bai. EHUK harreman ona du Paueko Unibertsitatearekin eta honek Baionan duen ordezkari-tzarekin. Bordeleko Unibertsitatearekin ere bai. Gero eta gehiago. Asteartean izan genuen hemen jarduera ireki bat, Donostiako Zuzenbide Fakultatean klinika juridikoa sortzeko, justizia sozialarekin bat eginez. Bordeleko ereduak ekarri genuen. Beste inora joaterik ez dutenei laguntza jasotzeko aukera eskaini nahi diegu fakultatetik, txosten juridikoak eginez, apur bat bideratuz... Hori da helburua, aurten jarriko da praktikan eta hemen aurkeztu zen.

Eskulturak ageri dira Miramareko pasilloetan.

Gorritiren erakusketakoak dira. Oraintxe ari gara muntatzen. Bai kanpoan eta bai barruan egongo dira artelanak, uda osoan. Garrantzitsua da aipatzea ikastaroen barruan kokatu dugula erakusketa. Gorritik oso ondo uztartzen ditu bere lanean gauza asko, tartean unibertsitatea eta artea. Hain zuzen berak horixe esaten zidan: «Nire aitak ikusiko balu ni unibertsitate eremu batean nagoela, nire lana hemen sartu dela eta errekonozimendu bat izan duela, emozionatu egingo litzateke!».

Udako ikastaroak ez dira ikastaroak soilik.

Gero eta gehiago ikusten dira ekintza ezberdinak. Donostia Cup-ek Indiako zenbait eremutan kirola nola bizi den eta emakumeak zer paper daukan han azalduko du. Ez dizut aipatu, baina bospasei ikastaro dauzkagu emakumearen ingurukoak. Adibidez, erromatar garaian zer-nolako papera izan zuen aztertzeke, baita Vasconian ere. Emakundek 'Emakumea eta botere harremanak' ikastaroa antolatatu du. Emakumeak zineman eta artean egin dituen ekarpenak ere jorratuko dira. Gero konturatzen zara, programazio guztia aztertzen duzunean. Ez dugu bilatu; errefuxiatuekin gertatu den bezala, gizarteak eskatu digu.

Aktualitatearen marka.

Noski. Gure asmoa ez da bakarrik unibertsitateko azken gara-

EUSKARA

«Euskara nire obsesio bat da. Zientzia euskaraz egin daitekeela konbentzitzea, jendea erakartzea eta ikastaro gehiago egotea»

IRAKASTEKO ERAK

«Hogei urtetan egon naiz oholtza baten gainean ni bakarrik hizketan; orain oholtzatik jaitsi naiz, ikasleen artean ibiltzen naiz, galdetu egiten diet...»

pen zientifikoak ezagutaraztea; gizarteari ireki nahi dizkiogu unibertsitateko ateak. Uste dut hori dela garrantzitsuena. Ateak ireki eta hemen zer egiten dugun erakustea, baita feedback-a sortzea ere, gizarteak esatea «guk hau pentsatzen dugu eta gai hauek nahi ditugu». Bestalde, gero eta gehiago ikusten ari gara lanbide jakin batzuetako langileek (medikuntzakoak, ekonomialariak...) elkartu, eta beren arloetan zer egin dezaketen eta zer berrikuntza sor ditzaketen ikusi nahi dutela, balantze bat egin... Hiru eremu dira: azken ezagutza zientifikoak gizarteratzea; gizarteak gaiak hona ekartzea eta jendea irekitzea; eta lanbideen eremu hori jorratzea. Gero eta eremu gehiago dauzkagu. Gaur bertan egon naiz historia begiratzen; 1982an hasi ziren ikastaroak, hiru fakultate antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Joxe Migel Barandiaranek

eman zuen hasiera hitzaldia. 600 ikaslerekin hasi ziren eta ia 10.000 lagun izan genituen!

Orain Donostiatik bertze hiri-buru eta herrietara zabaltzen ari zarete.

Konturatu gara udaran ikastearena unibertsitatearen eremu guztira hedatu behar dela. Hogei jarduera baino gehiago ditugu Bizkaian, oso arrakastatsuak. Eta Araban hamalau bat jarduera daude aurreikusita. Elikadurarekin eta nutrizioarekin zerikusia daukaten gaiak indartu nahi ditugu, hor bertan dauzkatelako fakultate horiek. Guardia, Moreda, Agurain eta Gasteizen ditugu ikastaroak. Gipuzkoan, berriz, Irunen eta Zumaiian. Baionan ere bai. Garrantzitsua izango litzateke herriz herri joan eta bakoitzak zer landu nahiko lukeen galdetzea. Paper hori ere badaukagu, unibertsitatea gizarteari hurbiltzea. Ari gara.

Jendartea bezala, ikasteko moduak aldatzen ari dira. Nola ari zarete egokitzen?

Estilo liburu bat egin nahi dugu etortzen diren irakasleei gomendioak emanez pedagogia sistema aktiboak erabiltzeko. Aldaketa hori egitea ezinbestekoa iruditzen zait. Eta fede ikaragarria daukat, nik bizi izan dut: hogei urtean egon naiz oholtza baten gainean ni bakarrik hitz egiten eta motibazio gutxiagorekin eta orain oholtzatik jaitsi naiz, galdetu egiten diet, denak ezagutzen ditut, beren izen-abizenak dakizkit. Hori lortu dut, ikasleak klasera etortzea eurek nahi dutelako eta ez zerrenda pasatzen dudalako. Udako ikastaroetara nahi dutelako datoz, motibazio hori badute, baina aukera eman behar zaie nahi badute parte hartzeko. Sentitzera ere badator jendea.

On-line ere bazaudete.

Ikastaroak grabatu egiten ditugunez, neguan on-line eskaintzeko aukera dago, eta batzuek, adibidez Hezkuntzakoek, izugarriko arrakasta daukate. Jendeak nahi dituela ikusten dugu.

Erronkarik gelditu zaizu datoren urterako?

Euskara nire obsesio bat da. Zientzia euskaraz egin daitekeela konbentzitzea, jendea erakartzea eta ikastaro gehiago egotea. Beste erronka batzuk Baionan beste jardueraren batzuk jorratzea; EAeko herri ezberdinetara iristea eta orain arte jaso ditugun ebaluazioak mantentzea dira. Jendea ondo tratatu nahi dugu, bere etxean bezala. Eta erronka nagusia unibertsitatearen ateak gizarteari irekitzea da.

Cinco premios Nobel acudirán al festival «Passion for Knowledge»

GARA | DONOSTIA

El festival de ciencia "Passion for Knowledge" 2016, organizado por iniciativa de Donostia International Physics Center, contará con la presencia de cinco premios Nobel, entre otros expertos.

El certamen tendrá lugar entre el 27 de setiembre y el 1 de octubre y tendrá como sede principal el Teatro Victoria Eugenia de Donostia, aunque también se han programado actividades paralelas en Bilbo y Bordele, y en otros puntos de Donostia. La iniciativa se integra en el

programa oficial de la Capitalidad Cultural Europea, dentro de la sección "Conversiones".

Conferencias para todos

El festival centra su programa en actividades para todos los públicos y la propuesta incluye ponencias de destacados investigadores como Klaus von Klitzing (Nobel de Física, 1985), Claude Cohen-Tannoudji (Nobel de Física, 1997), François Englert (Nobel de Física, 2013), Dudley Erschbach (Nobel de Química, 1986) o Martin Karplus (Nobel de Química, 2013).



Presentación del evento en Donostia.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Sólo un 47% de alumnos aprobó el polémico examen de matemáticas

GARA | BILBO

Un 47,32% de los alumnos y alumnas que se examinaron en la CAV de la asignatura de Matemáticas Aplicadas a las Ciencias Sociales en selectividad aprobó el examen, una cifra muy inferior al 97,9% que superó las pruebas de acceso a la universidad, según los datos hechos públicos ayer por la UPV-EHU.

La UPV-EHU explicó que 1.325 estudiantes de los 2.798 que se examinaron de Matemáticas Aplicadas a las Ciencias Sociales, que «ha generado cierta polémica» sobre su grado de dificultad, la superaron. Apuntó a que «es previsible que este porcenta-

je -47,32%- pueda aumentar, habida cuenta de que aún no se han resuelto los recursos que se puedan interponer, característicos de estas pruebas de selectividad.

En cuanto a las cifras globales, de los 9.663 estudiantes presentados, 9.460 aprobaron la fase general, que se debe superar para acceder a las enseñanzas oficiales de grado. Además, existe una fase específica voluntaria para mejorar la calificación.

Los 6.778 estudiantes que se examinaron en euskara lograron una tasa de aprobado del 98,73%, frente al 95,94% de los 2.885 alumnos que efectuaron la selectividad en castellano.